



ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO
Tfona. : 943-313 030 e-posta: infogeldo@euskalerrria.org

GAIAK:

Din-din elkartearen urteko batzarra

Apaizarekin bilera

Sindikatu

Herri Kontseiluaren berritzea

IAAM: "Elkartasunak ez du etenik izango!"

Martxoak 6, emakume afaria

Adin Txikiko etorkinen zentrura bixita

Musik@rteri agurra



Kixmik 10 urte

ELKARRIZKETA

Maialen Aizpiolea
Maidier Ilarramendi



Kaixo herrikide!!!

2010eko lehenengo alea duzue hauxe eta ikusiko duzuen bezala, urte berriarekin batera, ukitu berria eman nahi izan diogu Orri Informatiboari, askorik izan ez bada ere... Dena dela, ohitura zaharrak ez ditugu galdu eta bi hilabetero egin ohi dugun bezala, herriko azken gertakizunen berri ematera gatoz.



eta urte guzti hauetan egindako lanaren nondik-norakoa ezagutzeko aukera izango da Orri Informatibo honetan. Horrez gain, Herri Kontseiluan aztertutako gaiak eta herriko beste gertaera batzuk ere badituzue.

Baina hasi baino lehen, neguak utzitako irudi bat ekarri dizuegu

Esaterako, Kixmi aisialdi taldearen 10garren urteurrena dugu ospatzeko eta taldearen sorrera

hona. Aurten ere herriko bazterrak txuritu dizkigu elurrak, eta ez behin bakarrik! ■

KONTU KONTARI

KIXMIREN 10. URTEURRENA

Begirale, guraso eta partaideen elkarlanak 10 urte bete ditu

Igeldoko Kixmi aisialdi taldeak 10 urte bete zituen abenduan eta taldea behar bezala ezagutzeko, hasiera hasieratik orain arte, begirale izan den kide batekin eta bere garaian partaide gisa hasi, eta egun, begirale den beste kide batekin bildu da Orri Informatiboa: Maialen Aizpiolea eta Maider Ilarramendirekin, hain zuzen.

Hilaren 28rako, iganderako, prestatu duten festa ere zehaztu digute.

“Denon artean ospatzekoa izango den herriko festa”.

Zu Maialen, hasiera hasieratik zaude Kixmin, kontaguzu, nola sortu zen?

M. A.: Igeldon, Herri Kontseiluaren barruan, beste batzorde batzuekin batera, kultura batzordea zegoen (gaur egungo Musik@rte izango litzatekeena) eta bertako kideak konturatu ziren Igeldon ez zegoela ezer aisialdiaren inguruan. Orduan hitz egin zuten Urtxintxa Begirale Eskolarekin eta planteatu zien: *talde bat osatzen baldin badugu emango zeniekete hemengo gazteei ikastaro trinko bat?* Urtxintxak baietz esan zuen eta guri proposatu ziguten. Baietz esan genuen, baina hiru-lau pertsona falta ziren taldea osatzeko. Orduan esan zitzaion Zubietako gazte batzuei. Igeldotik ikastaroa eman genuen Nekane Lizarazu, Iñigo Gorostidi, Ainhoa Gorostidi, Olatz

Astiazaran, Ixiar Uranga, Larraitz Dorronsoro eta nik. Eta ikasi genuen nik uste minimo batzuk behintzat aisialdi talde bat martxan jartzeko.

Noiz jarri zineten martxan?

M. A.: Bukatu genuen abendu hasieran ikastaroa eta abenduak 28an jaitsi ginen Donostiara materiala erostera. Abenduak 29an lehenengo ekintza egin genuen. Lehenengo ekintza izan zen dekorazio tailer bat, Gabonetako gauzak egiteko.

Eta hurrengo ekintza noiz izan zen?

M. A.: Batez ere opor garaitan egiten genituen ekintzak. Arazoa zen Igeldon ez zegoela ezer umeentzako eta gazteentzako; ez biltzeko tokirik ez ezer. Gainera denak bizi ziren

oso sakabanatuta herritik eta elkartzen ziren bakarrik eskola garaian. Eta gu hasi ginen pentsatzen opor garaitan zein ekintza egin. Gabonetan, Aste Santuan... Irteerarena lehenagotik ere bazegoen tradizioa, eta gero guk hartu genuen.

Gabonetako eskearekin gertatu bezala?

M. A.: Ardura Kixmi hartzera iritsi da, baina beti esan izan dugu eta esaten dugu eskea herriko ekintza bat dela. Urteak dira egiten dela eta hori herriarena da. Antolakuntza agian guk eramango dugu, baina herritarrek parte hartzea nahi dugu.

Martxan jarri zinetenean, nolako erantzuna jaso zenuten?

M. A.: Umeen erantzuna izan zen *una pasada*. Juntatu ginen *jesu krixton* ume pilarekin. Gurasoak ere oso prest zeuden. Umeetan guk jarri genuen baldintza izan zen 6 urtetik gorakoak izatea. Eta juntatu ginen 6 urtetik hasi eta 18 urterainoko haur eta gazteekin. Garai hartan behar handia zegoen eta oso gustora hartu zen.

Eta zuk Maider, nola gogoratzen duzu garai hori?

M. I.: Ni partaide bezala, ume bezala hasi nintzen. Lehenengo irteera gogoratzen dut Segurara izan zela. 14 bat urte neuzkan. Irteerena hartu genuen oso gustora. Mistoa zen eta momentu horretan mutila eta nesken arteko *tonteria* hori zegoen eta gustora hartzen zen etxetik kanpo asteburu bat pasatzea. Hurrengo irteera Bakaikura izan zen eta han jarri genion Kixmi izena.

Nola izan zen?

M. I.: Gogoratzen naiz Gaubelan izan zela (gaueko ekintza, normalean diskotekarekin bukatzen dena).

M. A.: Izen zaparrada bat egingo genuela esan genuen. Paper txuri bat jarri genuen eta bakoitzak nahi zuen izena esan zezakeen. Hasieran izen serioak atera ziren, baina gero hasi zen pixka bat desmadratzen... Eta karo, guk esan genuen bozkatu egingo genuela eta ateratzen zena izango zela... Eta Beñatek Kixmi esan zuen. Bi izenen arteko *enpate* modukoa sortu zen, baina azkenean Kixmik irabazi zuen. Nik uste segituan barneratu zela izena.

Nabarmentzeko moduko ekintzaren bat baduzue?

M. I.: Ni batez ere, eskeaz, ondorengo merendolaz eta irteeretaz gogoratzen naiz. Ekintza horietan hartzen nuelako parte. Mahai joku txapelketaz ere gogoratzen naiz, orduan 16 bat urte izango nituen. Eta urte hartan izango zen ziurrenik, Gabonetan jaiotza antzeztu genuen. Orain egiten den Olentzeroren etorrera egin



beharrean antzerkia egin genuen. Nik idiarena edo astoarena egin nuen.

M. A.: Oso potentea izan zen ere beste Gabon batzuetan egin genuena. Pirritx eta Porrotxek zuten Nikaraguako ume batzuri laguntzeko proiektua. Eta guk egin genuen eskulan tailerra, kriston lana egin genuen eta hauek denak etorri ziren. 17 urte inguru izango zituzten. Eta gero denon artean txiki, begirale eta koxkortuagoen artean antolatu genuen 24 gauean esketik etorri eta azoka. Eskulanak saldu genituen eta aparte jarri zen baita ere bertso makina. Txanpona sartzen zenuen eta hauek atzetik bertsoa abesten zuten. Diru mordoa atera zen.

Diru hori Nikaraguako haurrentzat izan zen. Eta Kixmik nola lortzen du dirua?

M. A.: Kixmik eskeko diruarekin antolatzen ditu urteko ekintzak, materiala ordaindu... Ez du beste diru ituririk. Kixmik ez du inoiz dirurik eskatu, ez du inoiz beharrik izan. Bera izan da atera duena dirua. Hori bai, kuota batzuk badaude. Esaterako, begiraleok inoiz ez dugu ezer kobratu. Bakarrik kobratu izan dugu udaleku irekietan begirale lana; izan ere, hasi ginenean ikasleak ginen eta guretzeko udara izaten zen dirua ateratzeko era bakarra. Eta udalekuak egin behar baldin baziren ezin genuen lanik egin beste inon. Orduan eskatu

“Gabonetako eskearen ardura Kixmi hartzera iritsi da, baina herriko ekintza bat da eta herritarrek parte hartzea nahi dugu”.

genuen diru bat behar genuela. Baiezkoa esan zen eta horregatik ordaintzen da kuota bat begiraleak-eta ordaintzeko. Hori udarakoa bakarrik, gainerakoa borondatezkoa da.



Hamar urte hauetan aldaketak izango ziren Kixmin, ezta?

M. A.: Bai, noski. Kixmi hasi zen ikusita zer behar zeuden herrian. Eta handik gutxira, urtebete bi urtera edo konturatu ginen hauek jada kokorak zirela eta beraien aldetik kriston borondatea jartzen zutela. Etorri egiten ziren, baina oso zaila zen 16-17 urtekoentzat eta 6 urtekoentzat plangintza berdina egitea. Orduan erabaki genuen bi plangintza paralelo egitea urte guztirako. Eta hor txikiekin asmatu genuen, baina hauekin urte guztiak ez zuen hain ondo funtzionatu. Baina bai irteerek.

Irteeretan ere zaila izango zen guztien gustoak kontuan izatea.

M. A.: Bi talde sortu genituen: 6tik 14ra eta 14tik 17 ingurura. Hor *mobida* izan genuen. Berez zen 14tik gora eta ez zen ezer pasatzen baina gertatu zitzaigun parte hartzaileetako batek 18 urte bete zituela. Eta gu ere gazteak ginen. Orduan ze puntutaraino jarri behar genizkien hauei arauak? Nahiko *permisiboak* ginen. *Bista gorda* asko egiten genuen. Baina 18 urte bete zituen batekin kezka sortu zitzaigun. Hala ere ez zen arazorik izan. Oso ondo portatu zen.

Baina esaten nuena, bi urtetan egin ziren ekintzak paraleloan. Eta gero zaharrenak hasi ziren ibiltzen lokalean eta hor haustura bat eman zen; haustura naturala. Ez ziren Kixmira etortzen, bilerak eta plangintzak lokalean egiten zituzten.

Kixmi egoera berrietara egokitzen ahalegindu da beraz.

M. A.: Niretzako Kixmin izan dira nahiko hausnarketa kontinuoak. Behintzat hasierako 6 urte horietan. Aldatzen zihoan panorama etengabe eta Kixmi nola

egokitu asmatzen.

Eta beste haustura bat izan zen hezkuntza sistema aldatu zenean eta 12 urterekin behera jaisten hasi zirenean. Lehen 14 urterekin pasatzen ziren institutura. Hor konturatu ginen 12 urtekoak ez zirela etortzen Kixmira. Handiak sentitzen ziren. Horrekin buruhauste dexente izan genituen. Nola egin horientzako zerbait erakargarria eta interesgarria? Donostira jaisteko ohitura zeukaten eta pena ematen zigen.

Eta orain nola dago egoera?

M. I.: Kixmiren sorreran parte hartu zuten guztiak joan dira. Maialenek ere urteurreneko festa ospatzean utziko du. Geratzen garenok ikusi dugu beharra hausnarketa bat egiteko. Ikusi ze ume dauzkagun, zer dakagun eta zer egin dezakegun. Eta zertarako gauden prest. Horrez gain, formakuntza jaso beharra daukagu. Hasierakoek jaso zuten bezala, Urtxintxako hori, guk, orain gauden gehienok ez dugu jaso. Eta beharrezkoa da.

Eta umeen aldetik?

M. I.: Nik uste erantzuna batez ere dagoela 2-6 urte bitartekoen artean. Horiek mugitzen dira gehien. Gero etortzen dira 7-8 urtekoak ere, baina gehiago txikiak. Eta ludotekak askotan gertatzen zaigu lehen aipatu dena. Ludoteka da 2-12 urte bitartekoentzat eta zaila da denen gustokoa izango den ekintzak antolatzea. Baina saiatzen gara.

Ludoteka aipatu duzue, nola sortu zen?

M. A.: Behemenditik (nekazal ingurune eta herrietako garapenerako elkarteak) etorri zen proposamen bat baze-goela diru laguntza bat ludoteka bat martxan jartzeko, baina lokala behar zela. Ematen zuen diru-laguntza materialerako. Baina etorri zen derrepente, eta baiezkoa edo ezezkoa esan behar zen luzatu gabe. Eta baiezkoa esan genuen. Ez genekien non egingo genuen ez ezer, baina baiezkoa esan genuen. Lista egin genuen, erosi genituen gauzak eta proiektua egin genuen. Jubilatuen lokalean baimena eskatu zen, negoziatu zen erdibana izango zela... eta hortxe gaude.

Nola funtzionatzen du?

M. I.: Ludoteka irekitzen da egunero astean zehar. Hilabeteko azken ostiraletan Kixmik hartzen du ardura tailer bat egiteko. Eta astelehenetik ostegunera irekitzen dute gurasoek. Egun bakoitzeko dago guraso arduradun bat. Arratsaldetan pare bat orduz irekitzen da; eskola bukatuta, 16:30etatik 18:00etara gutxi gorabehera. Harremanetan gaude gurasoekin. Hiru bilera egiten ditugu urtean: irailean, otsailean eta ekainean. Zenbat ume ibili diren, ze material beharra dagoen... ebaluaketak eta memoria egiten dira. Gurasoek ere egiten dituzte beraien tailerrak eta batzuk jada zehaztuta daude,

fijoak dira. Ume dexente elkartzen da. Guk antolatzen ditugun tailer horietan saiatzen gara lotzen garai horretan dagoen festarekin. Esaterako, udazken festa, gabonak, inauteriak...

Haur Txokoa ere badago, ezta?

M. I.: Bueno... kontua da Udaletxeko teknikari bat etorri zela gazte sailekoa, esanez diru laguntza bat zegoela horretarako eta aukera ematen zigutela. Baina zela proiektu piloto bat, hau da, urtebeteko proba izango zela eta urtebete pasa ondoren ikusiko zela jarraituko genuen edo bertan behera geratuko zen. Eta proiektua egin genuen guraso eta begiraleen artean. Udalak esan zuen aukera zegoela beraiek aukeratzeko langile bat, baina egokiagoa iruditzen zitzaizela herrian erabakitako talde batek kudeatzea. Orduan erabaki zuen Herri Kontseiluak Kixmiri ematea ardura.

M. A.: Guk ez genuen nahi kanpotik etorritako norbaitek kudeatzea.

M. I.: Hurrengo pausoa izan zen erabakitzea Haur Txokoko langileak zeintzuk izango ziren. Eta hor erabaki zen bat Kixmiko begiraleetako bat izatea eta bestea herrikoa. Deialdi irekia izan zen. Zehaztu ziren langileak, margotu zen solairua, jolasak ere jarri ziren... gauza pila bat. Txokoak ere zehaztu ziren.

M. A.: Hori zen larunbat arratsaldetan irekitzeko, 2 ordu eta erdiz. 6-12 urtekoentzat. Pentsatu zen pixka bat galdua geneuzkan ume horiengana zuzentzea gehiago.

Eta zer gertatu da?

M. A.: Erosi genuen materiala, eman zuten diru zati bat, eta beste zatia ez zuten eman paper kontuak zirela eta... baina ez dakigu oso ondo pelota non dagoen. Geldituta dago. Falta zen diru kopurua ez da asko izango. Litzateke langileen soldatak ordaintzeko; izan ere,

horiek bai izango lirateke langileak kontratu eta guzti.

Hainbeste txoko eta ekintzekin, begirale aldetik nahikoak al zaudete?

M. I.: Orain 7-9 bat gaude, nahiko.

M. A.: Bai gainera begiraleena izan da beti berritzen joan den zerbait. Kixmik ez du inoiz ezer egin behar izan jendea lortzeko. Agian komentatu bai baten bati animatzeko, baina ez da inoiz

egoera larririk izan. Jendea beti oso prest egon da. Falta izan dena beti, mutilak. Eta erreferentziak beharrezkoak dira umeentzat.

M. I.: Bai hori nabaritzen da. Esaterako aurreko urtean Hondarribira egin genuen irtenaldian, Haur Txokoan hasi behar zuen langilea etorri zen, mutila, eta *pasada* bat izan zen hurrek nola hartu zuten.

Elkarrizketa bukatzeko; 10garren urteurrena ospatzeko festa antolatu duzue otsailaren 28rako...

M. A.: Bai eta argi utzi nahi dugu gauza bat: hasiera hasieratik planteatu da Kixmi osatzen dutela ume eta gazte partaideek, begiraleek eta gurasoek. Izan dela beti hiru hankatako mahai bat. Tripode bat. Denak izan dira inportanteak, eta 10garren urteurren hau ere nahi dugu denon artean ospatu. Ez da izango guk umeei egingo diegun zerbait.

Izango da oraingo umeak, oraingo gazteak eta Kixmitik pasa diren ume eta gazte guztiak eta horien guraso guztiak biltzen dituen festa. Eta hori herrira zabalduko da. Denon artean ospatzekoa izango den herriko festa bat izango da.

M. I.: Arratsaldeko festa izango da. Afari merienda ere egingo da eta gonbidatuta daude herritar guztiak. Afari meriendara joan nahi izanez gero, zerbait eraman besterik ez dago, irekia baita! ■



16:30-17:00ak aldera plazan elkartu, eta Din-din elkartean antolatuko dugu.

17:00etan Denon artean gara Kixmi.

18:00etan "Kixmik 10 urte, ZORIONAK!!!" bideo emanaldia, Kultur etxean.

Ondoren afari merienda egongo da Din-din elkartean, guztion artean elkarrizketarako janariarekin.

Oharra: arratsalde osoan zehar, ludotekako ateak zabalik egongo dira, ezagutzen ez duenak bisita dezan. Bertan hurrek egindako erakusketa zoragarri bat ikusteko aukera izango da.

LABURRAK

APAIZAREKIN BILERA

Herrira etorri berria den apaizak, Jose Ignazio Usabiaga Martinek, bilera bat egitea eskatu du, Lokalaren inguruan hitz egiteko. Bilera honetara Herri Kontseiluko 3 kide joango dira eta bertan herriaren inguruko informazioa emango zaio, dituen zalantzak argitzeko eta elkar ezagutzeko.

SINDIKATUA

Atea edozein garaitan irekia egoten da. Hau ez gertatzeko kanlatu bat jartzea litzatekeela egokiena uste du IHKK. Eta teitatuaren egoera geroz eta okerragoa denez, bide aldera ematen duen zati bat erortzear dagoelako, zerbait egin beharra ikusten da.

HERRI KONTSEILUAREN BERRITZEA

Herri Kontseiluaren berritze prozesua martxan dago jada. Herri Kontseiluak azken urteetako ibilbidearen hausnarketa bat eginga du eta aurrera begira eman beharreko pausuak zeintzuk izan behar diren lantzen ari da batzorde bat. Gaia gehiago zehazten denean emango da horren berri.

Elkartasunak ez du etenik izango!

Gabonetan presoan aldeko diru laguntza eskaera egin genuen etxez etxe, presoek dituzten oinarritzko beharrak bermatzeko. Igeldotarren elkartasuna eskertu nahi genuke lerro hauen bitartez : 2.465 € lortu ditugu, ESKERRIK ASKO!

Eta bide batez, berriro ere, gogora ekarri nahi dugu preso politikoei bizi dituzten muturreko egoera larriak eta herri honetan bizi dugun errepresio itogarria: dispersioa presoan senitarteko eta lagunak era krudelean sufritzen ari dira azken urte luze hauetan, gaixotasun larriak dituzten presoak kartzelan mantentzen dituzte, bizi arteko kartzela zigorra ezarri dute, atxilotuek inkomunikazioa eta egoera honek errazten duen tortura basatiak jasaten dituzte... Eta hori gutxi balitz, azken hilabeteetan presoan senide zein

lagunei bisitetan katxeo eta humilazio sistematikoa ezarri diete, kasu askotan, ehundaka edota milaka kilometro egin ondoren, bisitarik egin gabe itzuli behar izan direlarik. Bien bitartean, demokraziaren izenean, giza eskubideez hitz egiten dutenen isiltasun koldarra. Rubalcaba bera harro ageri da Europako kartzela politika gogorrena dutela esanez. Izan ere, Nelson Mandela baino urte gehiago daramaten euskal preso politikoak badira. Antza, beste batzuk impunitate osoz torturatu eta erahilketak egiten dituzten bitartean.

Azkenik, preso politikoen kolektiboak urtarrietik borrokaldi bat hasi du. Dagozkien eskubideen jabe izateko eta status politikoa aldarrikatzeko; beraz, adi mobilizazioei.

Igeldoko Amnistiaren Aldeko Mugimendua



Din-din elkarteak urteko balantzea positibotzat hartu du eta junta aldaketaren berri eman du.

Joan den urtarilaren 31n, Din-din elkarteak batzarra antolatu zuen urteko balorazioa egin asmoz, besteak beste. 40 bazkide inguru elkartu ziren eta balantze positiboa egin zuten: urtean zehar elkarteari eman zaion erabilpen ugaria, bertan egin diren berriak (leiho berriak, insonorizazio...) baita juntak egindako lana ere. Bertan junta aldaketaren berri ere eman zen eta honakoak dira arduradun berriak: Joxe Mari Uranga, Kote, Ramuntxo Urruzmendi, Maria Luisa Dorron-soro, Begoña Eizmendi, Mirari Barrondo, Jose Manuel Izagirre eta Ana Kruz. Ohi bezala, batzarra, juntak antolatutako hamaiketako eder batekin bukatu zuten. Bejondeizuela!!!

MARTXOAK 6, EMAKUME AFARIA

Emakumearen Nazioarteko eguna inguratzen ari dela eta, Igeldoko Emakume Baserritarrek urtero bezala, afaria antolatu dute. Emakumeen Nazioarteko eguna, Martxoaren 8an den arren, Igeldoko emakumeek Martxoaren 6an ospatuko dute egun berezi hori. Beraz, emakume, animatu eta inguratu ospakizunera. Giro ederra izango baita!

Eguna: Martxoak 6, larunbata.



Lekua: Buena Vista jatetxea.

Apuntatzeko: Txapela tabernan edo

deitu, 645 73 57 62ra (Larraitz).

Apuntatzeko azken eguna: O-28.

Herrian ze berri?

ADIN TXIKIKO ETORKINEN ZENTRURA BIXITA



AURREKO alean aipatu genuen moduan, abenduaren 18an herrian bizi diren Marokoar gazteen etxean izan ziren hainbat herritar. Harrera oso ona egin zietela azaldu dute, etxea erakustez aparte, afari-merienda goxoa prestatu baitzieten.

Hurrengo egunean, futbol partidua jokatu zen herritarren eta tangertarren artean. Hasieran, berotzeko bi taldeek elkartuta jokatu zuten eta ondorenean, festetako errebantxa izan zen. Tangertarrak nagusitu ziren oraingoan. ■



MUSIK@RTERI AGURRA

1999, SORRERA:

1999ko irailean, Igeldoko Kultura Batzordeak, herri mailan kulturaren inguruan zegoen gabezia ikusirik, proiektu berri bati bide eman zion eta horrela sortu zen Musik@arte Kultur Gunea, Igeldoko kultur arloa kudeatzeaz arduratuko zena gaur egun arte. Kultur gune honek, hasieratik honako helburu hauek zehaztu zituen: 1) Herriko kultur giroa indartzea eta kulturaren arlo honetan herrian dauden gabeziak betetzen laguntzea. 2) Musika eta artearen espresio ezberdinak ezagutaraztea, musika irakatsi eta ikastea, eta musika kultura zabaltzea. 3) Musika eta arte kreaio eta espresio propioak sortzen laguntzea. Helburu hauek finkaturik martxan hasi zen kultur gunea eta beste hainbaten artean funtzio hauek bete zituen: Musika eskola antolatu, ikastaro laburrak antolatu, eskola eta ikastaroetan ari direnen emanaldiak antolatu, Web gune propioa sortu eta musik@rte ezagutzera eramanean, kultur festen egitaraua antolatzen parte hartu. Taldearen osaketa anitza izan zen hasieratik, herriko talde ezberdinetako pertsonak osatzen baitzuten (2 guraso, eskolako partaide 1, herri kontseiluko 2, musika eskolako irakasle 1, Kixmiko partaide 1 eta 2 erabiltzaile).

Musik@arteren ibilbidea luzea eta emankorra izan da, herrian kul-

tur ekintzak antolatzeaz aparte giro ederra sortuz, herria mugimenduan jarri baitu. Urte asko pasa dira bere sorreratik eta denbora guzti honetan zehar lanean aritu direnak hasierako berdina izan dira, nahiz eta tartean partaide batzuk urrunditu eta beste berri batzuk hurbildu. Aipatzekoa da ere momentu jakin batean, Musik@artek bere funtzionamendua hobetze aldera, taldeko kide bat liberatzea erabaki zuela, herrian ordura arte ezagutu ez zen lan egiteko modu bati ekinaz. Hala ere, 2008. kurtsoren amaieran, Musik@rte osatzen zuten kideek, proiektua bera agortutzat jo zuten eta Herri Kontseiluari Musik@rteren amaieraz ohartarazi zien. Herri Kontseiluak, Musik@artek herriarentzat ordura arte egindako lana baloratu, nola edo hala jarraitu beharra zegoela ikusi zuen eta besterik ezean, kultur arloan minimo batzuk eskaini beharra adierazi zuen. Hortik, hasierako helburuak eta taldearen osaketa berhartuz, behin-behineko talde bat osatzea erabaki zen. Talde honek, 2009. urteko ikasturteari eutsi zion, Musika Eskola eta Ikastaroak eta herriko kultur jaien antolakuntzan parte hartuz.

2010, GAUR EGUN ZER?:

Gaur egun, musika eskola martxan dago, baina bertako irakasleak gestionatzen dute beraien egin beharra (trikitixa, panderoa, pia-

noa eta musika tailerra). Musik@rteko taldean, Musika Eskolako irakasleen partaidetza galdu baita. Bestalde, kurtso hasieran hainbat ikastaro ezberdin martxan jartzea planteatu baziren ere, hainbat arrazoiengatik, momentu honetan akuarela eta batukada soilik mantentzen dira. Partaideei dagokienez, egun hauek dira Musik@rte osatzen dutenak: Abesbatzko partaide 1, Kixmiko partaide 1, Herri Kontseiluko 1 eta dinamizatzailea.

Egoera honen aurrean egun Musik@rteko partaideok honako balorazioa egiten dugu:

“Azken bi urteetan, Musik@rteko partaideak oso galduta ibili gara transmisio faltagatik. Ezin izan dira ekintza asko aurrera atera, bai informazio falta zegoelako eta baita jende gabezia dagoelako ere. Musik@rte barruan dauden hainbat arazo, konpontzen ez direnez eta hauen aurrean zer egin eta nola konpondu ez dakigunez, Musik@rte desegitea eta hurrengo kurtsorako talde berri bat sortzea erabaki dugu. Talde berri honen hasiera gogorra izango dela kontuan izanik, herriaren laguntza eta partaidetza eskatzen dugu. Animatu eta prest bazaudete, idatzi e-mail bat edo telefonoz deitu, edo eta orri bat utzi zuen datuekin kultur etxeko gutunontzian (e-maila: igeldomusikarte@gmail.com //Tlfn: 943313030)”.

Mila esker guztiagatik.



**Igeldoko
Herri
Kontseilua**

Laguntzailea:

